

ARARTEKOAREN EKARPENAK, HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XXXVI. JARDUNALDIAK PRESTATZEKO LANTEGIAN

**“Arrisku egoerak haurtzaroan eta nerabezaroan:
erakunde bermatzaileen azterketa haurren eskubideen
ikuspegitik”**

*EAEko udal eta mankomunitateetako gizarte zerbitzuen
lankidetzarekin egindako txostena.*

ABENDUA, 2023

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



Aurkibidea

Aurkezpena.....	3
1^a. Haur eta nerabeen arrisku egoeren gaineko araudia, autonomia erkidego bakoitzean aplikagarria	5
2^a. Fenomenoa aztertzeko datu batzuk.....	11
1.- Administrazio eskudunak.....	11
2.- Baloraziorako tresna teknikoak edo protokoloak.....	11
3.- Arrisku egoeretan esku hartzea. Administrazio ebazpenak. Haurren eta nerabeen eskubidea entzunak izateko esku-hartzeko prozesuan.....	12
4.- Babesgabetasun arriskuan dauden haurren eta nerabeen kolektiboa dimentsionatzeko datu batzuk	15
5.- Esku hartzeko batez besteko denbora eta arrisku deklarazioa eteteko arrazoiak.....	16
6.- Babesgabetasuneko arriskuaren bilakaera: hurbilketa	17
7.- Arriskueta esku hartu osteko babesgabetasun kasuetan hartutako babes neurriak.....	19
8.- Arrisku egoera larriei heldu	22
3^a. Defentsa bulegoek autonomia erkidegoan haur eta nerabeen arrisku egoerari buruz antzemandako arazo eta disfuntzio nagusien deskribapena.....	23
4^a. Defentsa bulegoek haur eta nerabeen arrisku egoeren arloan egindako jarduera nabarmenen zehaztapena.....	26
5^a. Autonomia erkidegoetan adingabeko pertsonen arrisku egoerei buruz garatzen ari diren jardunbide onen deskribapena.....	27
I. Eranskina. Defendatzaileen koordinaziorako 36. jardunaldien lantegirako galdetegia.....	29
II. Eranskina. Udalei eta mankomunitateei informazio eskaera.....	31
III. Eranskina. Kontsultatutako tokiko erakundeen zerrenda.....	33



Aurkezpena

Arartekoak urtero parte hartzen du, autonomia erkidegoetako gainerako defentsa erakundeekin¹ eta Espainiako defendatzailearekin batera, Koordinaziorako Jardunaldietan, hau da, gai monografiko bati buruzko diagnostiko eta proposamen partekatua jorratzen dituen lanean. Prozesu horren bidez, analisi konparatzailea eta hausnarketa partekatua egin nahi da, eskubideei dagokienez, pertsonen bizitza hobetuko duten gomendioak egiteko. 2023an, lanaren gai nagusia, adingabeek (haurrek eta nerabeek) jasan ditzaketen **babesgabetasun arriskuko egoerak** izan dira.

Aurreikusitako metodologia lantegietan oinarritzen da. Hala, prestakuntza lantegi horiek beren ondorio eta proposamenekin elikatu dute defentsa bulegoetako titularrak sinatutako azken adierazpena, Koordinaziorako Jardunaldiak amaitzean. Aurten, zehazki, Bartzelonan izan dira jardunaldiak, azaroaren 23an eta 24an, Kataluniako Síndica de Greugesek antolatuta.

Lehen prestaketa lantegia Sevillan izan zen, irailean, Andaluziako Herriaren Defendatzaileak antolatuta. Hala ere, topaketa honetarako defentsa bulego guztiek eman zuten aurretiazko informazioa haurren eta nerabeen arrisku egoerei buruz, beren lurraldeetako inguruabarrak kontuan hartuta eta aurrez adostutako gidoi bati jarraikiz (ikus 1. eranskina). Agiri honetan aurkezten dena, hain zuzen ere, Arartekoak EAEn babesgabetasun arriskuan dauden haur eta nerabeen egoerari buruz emandako informazioa da, betiere aipatu gidoian aurreikusitako itemei jarraikiz. Esan beharra dago agiriaren xedea hausnarketa errealitate desberdinetako pertsonekin partekatzea zela (ez ahaztu gizarte zerbitzuak autonomia erkidegoetara transferitutako eskumenak direla eta horien konfigurazioa askotarikoa dela). Ondorioz, atal batzuk, EAetik irakurrita, "jakinak" iruditu lezakete, esku hartzeko proiektu batean jasotzen diren elementuei, balorazio tresnei edo araudiari buruzkoak direlako, esate baterako. Hala ere, lan kolektibo honetan parte hartu zuten gainerako defendatzaileek ezagutu zuten bezala eskaini nahi izan dugu testu osoa.

Informazioa jasotzeko proposatutako gidoiak elementu kuantitatiboak aurreikusten zituen, errealitate honen dimentsioak ezagutarazteko: beharizanak, programa eta zerbitzuetan inplikaturako haur eta nerabeak, esku hartzeko denborak... Euskal Autonomia Erkidegoan, egungo araudiaren arabera, babesgabetasun arin edo neurritsuko arrisku egoeretan esku hartzea tokiko erakundeen eskumena da eta, EAE osoan ez dagoenez erregistro, datu banku edo bilduma bateratu eta eguneraturik, Arartekoak udal edo mankomunitate partikular bakoitzaren lankidetzara eskatu behar izan zuen. Horretarako, informazioa eskatu zitzaien (ikus II. eranskina) tokiko 38 erakunderi (III. eranskinean zerrendatutakoak), tartean EAEko biztanle guzti-

¹ Aragoiko Justizia, Andaluziako Herriaren defendatzailea, Kanarietako Gai Komunen Diputazioa, Gaztela eta Leongo prokuradorea, Kataluniako Síndica de Greuges, Valentziako Erkidegoko Síndica de Greuges, Galiziako Aledori do Pobo, Nafarroako Arartekoa.



en % 86,5 hartuta. Halaber, aurkezpen honek balio beza horiei guztiei eskerrak emateko, beraien erantzunengatik. Kasu batzuetan, erantzun horiek ondoren aberastu ere egin ziren, "elkarrekin pentsatzeko" aukera eman ziguten elkarrizketa eta bileren bidez.

Nahiz eta aurkezten den agiri honek bere horretan zentzua duen, irakurleentzat interesgarria izan liteke defentsa bulegoek egindako ekarpenetatik eraikitako azterketa ezagutzea. Bertan, laburbilduta, babesgabetasun arriskuan dauden haur eta nerabeen arretaren errealitatea jasotzen da, Espainiar estatuko lurraldeetan (Arartekoaren webean [eskuragarri](#)).

Halaber, interesgarria izan daiteke, osagarria denez gero, herriaren defentsa bulegoen urteko lana egituratzen duten beste bi ekitaldien ondorioak ezagutzea.

Horietako bat bigarren prestaketa lantegia da, kasu honetan Arartekoak antolatua eta Bilbon egina, ekainaren amaieran. Topaketaren helburua Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako 36. Jardunaldien esparruan egindako hausnarketa guztia-ri haur eta nerabeen ahotsa gehitzea zen. Haurren eta nerabeen partaidetza eza etengabe agertu da aurreko edizioetan, baita jorratutako gaia berariaz haur eta nerabeen eskubideekin lotuta zegoenean ere (hezkuntza, haur eta gazteen osasun mentala, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak...). Arartekoaren ustez, testuinguru arauemaile, sozial eta politikoarekin bat, defentsa bulegoetan administrazio publikoek egindako errekerimendu berberak aplikatuz eta kontuan hartuta 2023ko koordinazio jardunaldien esparruan lantzeko aukeratu zen gaia "adingabeei" buruzkoa zela, komenigarritzat jo zen haur eta nerabeen partaidetza sustatzeko espazio bat bultzatzea, gaiari buruzko beren ahotsa eta iritziak jasotzeko eta hausnarketa eta eztabaida prozesu orokorrean txertatzeko. Hala, defentsa bulegoen koordinazioaren historia luzean lehen aldiz, 7 defentsa bulego partaideetako neska-mutilez osatutako talde batek bere iritzia eta ikuspegia azaldu zituen ikerketaren gaiaren gainean. Talde horren [ondorioak eta ekarpenak](#) Arartekoaren webean jasota eta ikusgai daude.

Hirugarren elementua aurkezpenaren hasieran aipatzen genuen [adierazpen instituzionala](#) da (hura ere Arartekoaren webean ikusgai). Bartzelonan egindako topaketaren ostean adostu eta argitaratu ondoren, urte osoan zehar garatutako lana amaitu eta borobiltzen du, "Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako 36. Jardunaldiak" izenburupean.



1^a. Haur eta nerabeen arrisku egoeren gaineko araudia, autonomia erkidego bakoitzean aplikagarria

[3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzekoa eta babestekoa (2005eko martxoaren 30eko EHAA, 59. zenbakia).

Artikuluak (II. kapitulua. Administrazioaren babes ekintza, arrisku eta babesgabezia egoeretan)	Edukiaren deskribapena (arrisku arin eta neurritsuko egoerei dagokienez)
2. atala. Arrisku eta babesgabezia egoeretan jardutea	
49.artikulua. Babesteko jarduketak.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Neurri eta jardueren asmoa prebenitzea eta esku hartzea da. Xedea haur eta nerabeen garapen integrala bermatzea eta bizitza familiar normalizatua sustatzea da. 2. Arrisku eta babesgabezia egoerak gizarte zerbitzuek zehaztu behar dituzte, baliozkotutako tresna teknikoak aplikatuta.
50. artikulua. Agintarien eta herritarren betebeharrak.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Berehalako arreta emateko, esku hartzeko eta komunikatzeko (kasuaren arabera) betebeharra pertsona guztiek dute, baina, bereziki, beren lanbide edo funtzioaren arabera babesgabezia egoera edo arrisku posiblea antzematen dutenek. 2. Administrazio eskudunaren betebeharra da profesionalen segurtasuna zaintzea, bereziki gatazkatsuak diren administrazio prozeduretan.



3.atala. Arrisku-egoeretan jarduteko jarraibideak	
51. artikulua. Arrisku egoeraren kontzeptua.	<p>Haur eta nerabeen garapen pertsonal edo soziala kaltetzen duten eta babesgabezia moduan kalifikatu ezin diren egoerak.</p> <p>Haur eta nerabeen ongizatea mugatu edo kaltetu egiten da izaera pertsonal, sozial edo familiarreko inguruabarren ondorioz, edota guraso, tutore edo zaintzaileek ez badituzte hartzen edo ezin badituzte hartu, beren gain, haur eta nerabeen garapen normala bermatzeko erantzukizunak. Egoerak ez du adingabea bere familia gunetik banatzea justifikatzeko adinako larritasunik.</p>
52. artikulua. Arrisku-egoeretako jar-duketak.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Administrazio publikoek haur eta nerabeen eskubideak bermatu behar dituzte, eta beren beharrianak asetzen direla ziurtatu. Haur eta nerabeen nahiz beren familien egokitzapen pertsonal eta sozialean eragin negatiboa duten arrisku faktoreak desagerraraztea izan behar da jardueren xedea. Horretarako, guraso, tutore edo zaintzaileen lankidetzat sustatuko da, babes pertsonal eta familiarreko baliabideak erabiliko dira, esku hartze komunitarioa indartuko da, eta orientazio eta jarraipen zerbitzuak bultzatuko dira. 2. Jaioko den haurraren garapen normala arriskuan jartzen duten egoerak ministerio fiskalari jakinaraztea. 3. Administrazio publiko eskudunen betebeharra da antzemandako egoera egiaztatzea, kasuaren ezaugarriak eta beharrianak ebaluatzea eta arazoa ebazteko beharrezko neurriak hartzea.
53. artikulua. Oinarrizko gizarte-zerbitzuen esku-hartzea (<i>lehen mailako arreta, 12/2008 Legearen arabera</i>)	<ol style="list-style-type: none"> 1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen ardura da: kasua jaso eta ikertzea; baloratzea eta orientatzea; beharrezkoa bada, erkidegoaren eremutik esku hartzea; eta balorazioan babesgabetasun egoera altua dela ondorioztatzen bada, babes zerbitzu espezializatura bideratzea (<i>bigarren mailako gizarte zerbitzuak, 12/2008 Legearen arabera</i>).



	<ol style="list-style-type: none"> 2. Erkidegoaren eremutik esku hartzea beharrezkotzat jotzen bada, arreta plan indibidualizatu bat egin behar dute, eta, bertan, antzemandako beharriaz erantzuteko diseinatutako esku-hartzeak jaso behar dira. 3. Horretarako, beharrezko langileak edukiko dituzte.
<p>55. artikulua. Familietan esku hartze-ko zerbitzu eta programak.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Familian esku hartzeko programak dira: gaitasun pertsonal, sozial edo hezitzaileen arloan hutsuneak dituzten familiei babesa ematen dietenak, gizarte eta hezkuntza mailan, baldin eta hutsune horiek haur eta nerabeei arrisku egoera sortzen badiete edo sortu ahal badiete, familiaren etxean egoteko zailtasunak eraginez. 2. Programak honelakoak izan daitezke: oinarrizkoak eta espezializatuak. Lehenak arrisku arin edo neurritsuko egoeretan aplikatzen dira, tokiko erakundeen eskumena dira eta familiaren etxean edo erkidego mailan egin daitezke (kaleko hezkuntza programak). 3. Arrisku egoeretan, programa hauen helburua haur eta nerabeak familia gu- neetan mantentzea da.



Haur eta Nerabeen Lege berriaren aurreproiektuaren testuak, izapidetze egoera oso aurreratuan dagoenak, interesgarria izan daitekeen kontzeptu berri bat jasotzen du: **babesgabetasunaren aurreko zaurgarritasuna**. Honela definitzen da: *“egoera bat, zeinetan, haurraren edo nerabearen beharrezko arreta egokia ematen zaion arren - eta, ondorioz, babesgabetasun egoera ez izatea, aurreko paragrafoetan zehaztutako eran-, badiren zailtasun pertsonal, familiar edo sozial batzuk, egoera horretarako zaurgarritasuna dakartenak, eta, ondorioz, babesgabetasun-egoera ager liteke etorkizunean”*.

Kontzeptu hori mendetasunean agertu ohi den *hauskortasunaren* antzekoa da. Hauskortasun kasuetan, balorazio eskalaren arabera oraindik ez dago mendetasun adierazlerik (gure kasuan, arrisku adierazlerik), baina, zerbaitek erraz asko eragin lezake mendetasun egoera sortzea, azkar batean (gure kasuan, babesgabetasuna). Egoera bat babesgabetasunaren aurrean zaurgarria dela zehazteak aukera ematen die gizarte zerbitzuei segurtasun juridiko handiagoarekin esku hartzeko, baldintza batzuetan, arreta mantenduz, egoerei eutsi eta arriskura iritsi ez daitezzen. Haur edo nerabe bati egindako sexu abusua litzateke adibide bat, baldin eta, balorazioa egin ondoren, familiak babeska ematen duela zehazten bada, baina komenigarritzat jotzen bada babes zerbitzu publikoetara jotzea, gizarte zerbitzuek egoeraren jarraipen sistematikoa egiteaz gain.

Horrekin lotuta, testu berriak **zaurgarritasun egoerak prebenitzeko neurriak** ere sartzen ditu. Orokorren, honela azaltzen ditu: *“familien eta haur eta nerabeen babes-faktoreak sendotzera bideratzen diren heinean, eta arrisku faktoreak murrizten, haur eta nerabeen eskubideen aldeko inguru seguruak eta babesleak eratzen lagunduz, eta babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoera edo babesgabetasun-egoerak sortzeko arrisku handiagoa duten egoera eta testuinguru negatiboak saihesten lagunduz”*. Legean zehar, osasunerako, hezkuntzarako, ongizate materialerako eta gizarteratzeko kaltegarriak izan daitezkeen egoerak prebenitzeko jarduerak jasotzen dira, baita haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko jarduerak ere.

Bereziki aipatu behar dira **hazkuntza funtzioei babeska emateko neurriak** (familia gunean bizikidetzaren harreman egokiak sortu eta indartzeko egindakoak; beren hazkuntza betebeharrak betetzeko orduan babeska emateko egindakoak, gurasotasun positiboaren eta gurasokidetasunaren ikuspegitik –kontziliazio-laguntzak + ongizate materialaren oinarritzako maila–; gatatzeko modu baketsuan konpontzeko gaitasunak eskuratzeko egindakoak) eta **familia unitatea hausten denean babeska emateko neurriak** (familia bitartekaritzako zerbitzu integralak, terapia zerbitzuak, gurasoentzako laguntza profesional espezializatua...).



[12/2008 Legea, abenduaren 5koa](#), gizarte zerbitzuei buruzkoa (2008ko abenduaren 24ko EHAA, 246. zenbakia).

1. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren biztanle guztiek gizarte zerbitzuak eskuratzeko duten eskubide subjektiboa aitortzen du (2. artikulua).
2. Babesgabetasuna definitzen du (ez soilik haur eta nerabeena, baina, noski, horiena ere) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak (GZES) artatzen duen egoera moduan, mendetasunarekin eta bazterketarekin batera (6. artikulua).
3. Hala, babesgabetasun eta babesgabezia arriskuko egoeretako esku hartzea sartzten du GZESen, lege honetan jasotako eskumenen banaketa, oinarritzko prozedura, sistemarako ezarritako plangintza tresnak eta abar aplikatuta.
 - a. Arrisku egoerak (bai babesgabetasuna, bai mendetasun eta bazterketa soziala): lehen mailako arretako gizarte zerbitzuek artatuta, tokiko erakundeen eskumena baitira (udaleko gizarte zerbitzuak).
 - b. Diagnostikoa, arreta plan pertsonalizatua, laguntza eta erreferentziatzko profesionala (19. artikulua).
 - c. Ohiko prozedura sistemara sartzeko atea: lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak (udalekoak). Ohiko eta premiazko prozedura honako honek garatzen du; [185/2015 Dekretua, urriaren 6koa](#), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
 - d. Esku hartzeko eredu komunitarioa; hurbiltasun handieneko zerbitzuak (hurbiltasun ertain edo baxuko beste mota batekin batera).
 - e. Plan Estrategikoa eta Gizarte Zerbitzuen Mapa: estalduren helburuak, lurralde banaketa eta abar zehazten dituzte (35. eta 36. artikulua).
4. Prestazio eta zerbitzuen zorroan sartutako gizarte zerbitzuen erantzukizun publikoa, zerbitzuaren kudeaketa zuzena edo zeharkakoa gorabehera (7. artikulua).
5. Prestazio eta zerbitzuen zorroan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara sartzeko zerbitzua zehaztea: **informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazioko zerbitzua** (urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren eranskinen 1.1 fitxa), udalaren eskumenekoa, gizarte laneko profesionalek oinarritzko gizarte zerbitzuetatik eskaintzen dutena.
 - a. Zerbitzuaren helburu nagusia familia eta pertsona erabiltzaileei GZESra sarbide informatua eskaintzea da, eta, hala badagokio, beste arreta sistema batzuetara bideratzea.



- b. Informazioa emateko funtzioan, zerbitzuak honako hauen berri ematen die pertsona eta familiei: 1) GZESren zerbitzuak eta prestazioak (erantzuten dituzten beharrianak eta egoerak; hartzaileak; sartzeko baldintzak eta prozedurak...); 2) eskubideak eta betebeharrak, beharrianen balorazioa eta, hala badagokio, diagnosiko soziala eta arreta plan pertsonalizatua (APP) edukitzeko eskubidean arreta berezia jarrita; 3) beren eskabidearen bilakaera.
- c. Orientazioa emateko funtzioan, GZESren zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren gaineko orientazio egokiena ematen du (edo prestazio eta zerbitzuen konbinazioaren gainekoa), kasuan kasuko beharrak kontuan hartuta eta bakoitzaren kostuak eta onurak zehaztuta. Egokia bada, beste arreta sistema edo politika batzuetako baliabideen berri ematen du.
- d. Balorazioa egiteko funtzioan, pertsonaren behar eta gaitasunen eta bere testuinguruaren hasierako balorazioa egiten du zerbitzuak. Balorazio honetan oinarrituta, jarraipena behar duen esku hartze bat egin behar dela ondorioztatzen bada, hasierako diagnostiko soziala egiten da, eta, horretarako, ahal den guztian, interesa duten pertsona eta familien eta beren babes sarearen partaidetza sustatzen da.
Orokorrean, eta diagnostikoak hala gomendatzen badu, kasuaren erreferentziako profesionala izendatzen da, pertsona edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin arreta plan pertsonalizatua egin dezan, eta haren kudeaketa beregain hartzen du, inplikaturako beste agente eta sistema batzuekin koordinatuta, planean aurreikusitako jarduerak martxan jarritz eta horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioa gauzatuz.

6. **Esku hartze sozioedukatibo eta psikozialeko zerbitzua** Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan sartzea. Halaxe jasotzen du urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren eranskineko 1.3 fitxak. Definizioan eta helburuetan, honako hau irakur daiteke:

Zerbitzu hau gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean babesteko harreman-prestazio indibidual, familiako edo taldeko batzuetan datza. Prestazio horiek familiaren bizilekuan (etxeko hezkuntza, familiaren gaineko oinarrizko esku-hartzea) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-arloko bitartekaritza) gara daitezke.



Zerbitzu honen helburuak dira erabiltzaileek: a) autonomiaz moldatzea, gizarteratzea eta familia- eta komunitate-inguruneko bizikidetzaren egokia bultzatuko duten gaitasun pertsonalak, familiakoak edo taldekoak (jarrerak, gaitasunak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) eskuratzea eta garatzea; b) ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak beste egoki batzuekin ordezkatzeko.

2^a. Fenomenoa aztertzeko datu batzuk

1.- ¿Zein administrazioek dute eskumena adingabeen arrisku egoerak antzeman, baloratu, horietan esku hartu, eta, hala badagokio, administrazio ebazpena ezartzeko, autonomia erkidegoan?

Agiriaren 1. atalean azaldutakoaren arabera, araudia hizpide, egoera horiek jasotzeko, ikertzeko, baloratzeko, eta hala badagokio, eremu erkidegotik esku hartzeko eskumena **udalena** da. Bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuetara (Foru Aldundiak eta, era berean, babes erakunde publikoak) bideratzeko betebeharra ere badute, balorazioan babesgabetasun egoera altua dagoela ondorioztatzen bada.

2.- Badago tresna tekniko espezifikorik edo protokolorik autonomia erkidegoan adingabeen arrisku egoera posibleak baloratzeko?

EAEn haur eta nerabeen arrisku eta babesgabezia egoeren larritasuna baloratzeko tresna 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koan arautzen da (2017an eguneratu zen). Tresna honen lehen dekretu arauemailea 2011koa da ([230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa](#)). Data horretan, udaleko gizarte zerbitzu guztiek jaso zuten beharrezko informazioa hura aplikatu ahal izateko.

- [152/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena.

EHAAn argitaratutako agiriak:

- [BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko tresna](#)
- [Tresnaren laburpen orria](#)



- [Haurtzaroko eta nerabegaroko oinarrizko beharren taxonomia eta horiek ebaluatzeko adierazleak](#)
- [Tresnaren gidaliburua](#)

Edukiaren deskribapen laburra

Tresnak honako gai nagusi hauek garatzen ditu:

1. Arriskuaren eta babesgabeziaren definizioa.
 - Kalte nabarmenaren kontzeptua.
 - Larritasun mailak.
2. Arrisku eta babesgabezia egoerak baloratzeko prozedura:
 - Inplikaturako zerbitzuak eta beharrezko baliabideak.
 - Txostena egitea.
 - Kasuak udaleko eta aldundiko gizarte zerbitzuen artean bideratzea.
 - Ondoren esku hartzea, arrisku maila desberdinetan.
3. Babesgabetasun egoera motak. Haurren eta nerabeen oinarrizko beharriaren taxonomia eta horiek ebaluatzeko adierazleak.
4. Beste inguruabar batzuen balorazioa: jaio aurreko arriskua eta tutore diren pertsonen lankidetzaren maila.

3.- Haurri eragiten dioten arrisku egoera posibleen adierazleak badaude:

a) Esku hartzeko programa edo proiektuak daude? Deskribapen laburra.

Orokorrean, lehen atalean esan bezala, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroak udalaren eskumeneko zerbitzu moduan eta babesgabetasun arrisku arin eta neurritsuko egoeren inplikazioarekin ezartzen ditu **informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazioko zerbitzua** eta **esku hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko zerbitzua**. Herritarrek zorro honetan jasotako zerbitzuetarako eskubide subjektiboa aitortuta duten neurrian, bi programak daude lurralde osoan. Hala, zerbitzuetako lehenengoan gizarte laneko profesionalak jakinarazpenak edo eskariak jaso eta kasuaren hasierako balorazioa egiten dute. Gainera, esku hartzeko taldeak daude, gizarte hezitzaileek eta psikologoek eratuta, bi testuinguru nagusitan babes sozioedukatiboa edo/eta psikosoziala emateko:



etxean (esku hartze familiarreko taldeak) edo erkidegoan (kaleko hezitzaileak). Beharraren arabera, esku hartzea indibiduala edo taldekoa izan daiteke.

Esku hartzeak, nolanahi ere, **esku hartzeko plan** bat jarraitzen du (leku batzuetan, kasuaren plana). Planaren edukia familia unitatearekin lortu nahi diren helburu orokorretan oinarritzen da, haur eta nerabeen babesa xede. Helburuak kasuaren erreferentziazko profesionalak (gizarte langileak) zehazten ditu. Hala, egoera bakoitzean aplikatu daitezkeen gizarte zerbitzuen katalogoko zerbitzuak preskribatzen ditu; kasu honetan, arreta sozioedukatibo eta psikosozialaren zerbitzua. Familia unitatearekin adostutako plana da.

Plana adostutakoan eta arreta sozioedukatibo eta psikosozialeko arreta zerbitzua preskribatutakoan, zerbitzu honetako profesionalak (hezitzailea eta psikologoa) plana zehaztu eta mugatzen dute, kasuan kasu egin beharreko helburu zehatzagoekin eta jardurekin.

Esku hartzeko planean jasotako punturik ohikoenak honako hauek dira:

- Haur edo nerabearen datuak
- Haur edo nerabeen arduradunen datuak
- Gizarte zerbitzuetako aurrekariak (halakorik badago)
- Egungo egoera sozio-familiarra
- Babesgabetasun adierazleak eta faktoreak
- Esku hartzearen helburuak
- Esku hartzearen nukleoak
- Proposatutako esku hartzearen denbora

Plan hau sei hilean behin edo familia osaeran, babesgabetasun egoeraren larritasun mailan eta bestelako aldagaietan aldaketa nabarmenak daudenean berrikusi behar da.

Esku hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko zerbitzuaz gain, udal eta mankomunitate batzuek beste programa batzuk garatzen dituzte, beren sentikortasunaren eta baliabideen arabera, formatu eta modalitate ugaritan. Horietako batzuk agiri honen jardunbide onen atalean aipatzen dira.

b) Kasu horietan, arriskua aitortzeko administrazio ebazpenak egiten dira? Eta, hala bada, zein unetan igortzen da ebazpen hori?

Kontsultatutako erakundeek emandako informazioak aukera ematen digu baieztatzeko, oro har, ez dela arriskuaren administrazio ebazpenik igortzen ari. Kasu gutxi batzuetan, araudiaren jakitun ere ez dira. Gainerakoan, kopuru handi



batek uste du ez direla oso erabilgarriak esku-hartzerako, eta beste prozesu administratibo bat dakartela, udalaren barruan kudeatu beharrekoa, zeregin burokratikoetara denborak eta ahaleginak eskainiz (denbora eta ahalegina lehendik ere urriak direnean). Horrez gain, udaleko gizarte zerbitzuen arlo eta sail gehienek ez dute aholkularitza juridiko propiorik. Beraz, prozesua are eta zailagoa da.

Hala ere, Gasteizko Udalak jakinarazi duenez, "legezko agindua ezagututa eta hura beharrezkoa eta egokia dela ikusirik, 2023. urtean aholkularitza juridikoko zerbitzu bat jarri da (kontratu txikia), arrisku adierazpenak egiten hasteko eta horrek eragiten duen guztirako, bai prozedura mailan, bai administrazio mailan, hasieratik amaierara". Babesgabetasun arrisku neurritsua dagoen kasuetan egiten dituzte.

Esperientzia pilotu moduan, honako zeregin hauek bete dira:

- Arrisku adierazpenak egiteko prozedura idatziz prestatzea.
- Arrisku adierazpenaren, ebazpen administratiboaren eta horrek dakarren lan planaren eredia prestatzea.
- Arrisku adierazpena aplikatzea hala zehazten den kasuetan eta laguntza juridikoa ematea gurasoekin egin beharreko audientzian.
- Profesionalei laguntza eta aholkularitza juridikoa ematea, prozesuan zehar.
- Prozesuan zehar maiz egiten diren galderak eta zalantzak nahiz horien erantzun juridikoak idatziz jasotzea.
- Egindako arrisku adierazpenen ebaluazioa eta jarraipena.

Lehen arrisku adierazpena 2023ko martxoaren 4an egin zen.

Beste udal batean, 2023an adierazpenak honako kasu hauetan igortzen hastea planteatu dute: arrisku neurritsuko kasuetan eta proposatutako balorazio edo/eta esku-hartze prozesuan familiaren laguntzarik ez dagoenean. Oraindik ez dira hasi.

c) Esku hartzeko prozesu horietan, arriskuan dagoen adingabeari entzuten al zaio? Zein unetan entzuten da?

Esku hartze sozioedukatiboko taldeetako profesionalen kontakizunetan, gehienetan, haur eta nerabeen interes eta premiak entzuteko moduak eta uneak jasotzen dira, baina entzute prozesua ez da nahitaezkoa eta ez dago prozeduran sistematizatuta edo txertatuta. "Familiari" entzutea aurreikusten da, hau da, legezko ordezkari, baina ez, ordea, haur eta nerabeei.



4.- Autonomia erkidegoko zenbat haur egon dira arrisku egoeran azken hiru urteetan (2020, 2021 eta 2022an)? Arrisku egoeran dauden umeen ehunekoa zenbatekoa da autonomia erkidegoko adin horretako biztanle guztien aldean? Zehaztu, ahal bada, egoera horretan dagoen adingabearen generoa eta adina.

Arrisku egoeran dauden haur eta nerabeen kopurua: ezin dugu datu hori eman, halakorik jasotzen duten estatistika publikoak falta direlako. Gainera:

- Udal eta mankomunitate batzuek formaltasun osoz egiten dute balorazioa soilik larrizat jotzen dituzten kasuetan, larritasunaren ondorioz bigarren mailako arreta zerbitzuetara bideratu behar diren erabakitzeko. Gainerakoan, gutxienez babesak emateko eta bilakaera hurbiletik jarraitzeko aski diren zantzu batzuk daudenean esku hartzen dute.
- Balorazioa egiten duten udalen kasuan, babesgabetasun egoera larria dela baztertzen bada, ez da beti emaitza jasotzen, bere mailaren arabera. Beren eskumeneko gaia izaki, berriz ere, esku hartzen hasten dira.
- Jakinarazpena jaso eta espedientea irekitzen duten kasu guztiekin balorazio prozesua hasten duten udalen artean, baten batek jakinarazi izan digu beti ez dela posible hori egitea edo amaitzea. Izan ere:
 - Familiak ez du laguntzen, ez doa hitzorduetara, udalerriz aldatzen da...
 - Kasuan genero indarkeria ere ematen da, eta, beraz, beste sail batera eskualdatzen da.
 - Jakinarazpena udaltzaingoarena da, haur eta nerabe horren gaineko lehen jakinarazpena da, eta gaiak ez du larritasunik. Ez dauka familia aurrekaririk eta, ondorioz, ez da hasten.
 - Emaitzak ez dira biribilak, eta, beraz, esku hartze bidezko balorazioa hastea erabakitzen da.
- Udalen beste talde batean, gai dira urte horretan esku hartze sozioedukatiboko programetan zenbat haur eta nerabe parte hartzen ari diren esateko, mailatan, baina ez zenbat baloratu diren (hau da, metatuak soilik).

Nolanahi ere, arrisku egoeran dauden haur eta nerabeei buruz eskatutako datura gehien hurbiltzen den kopurua, Balora tresnarekin balorazio zorrotz bat egindakoan hala aitortuta egotea eskatzen ez badugu, **esku hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko programetan inplikaturako haur eta nerabeen kopuruari** buruzkoa da. EAEko gizarte zerbitzuen mankomunitate eta udalei egindako kontsultaren arabera



(38 erakunde, autonomia erkidegoko biztanleen % 86,5ren errealitatea ordezkatzuz), datu hori da nolabaiteko bermeeekin eskain dezakegun bakarra. Izan ere, praktikoki erakunde guztiak eman digute, eta haren edukia GZESren prestazio eta zerbitzuen zorroko 1.3 fitxan deskribatutakoarekin lotuta dago. Beraz, homologatzeko modukoak direla uste dugu. Hala ere, ezin dugu zehaztu, lehen ere esan bezala, arreta jaso duten horien artean zenbat izan diren formalki baloratuak eta zein izan den balorazio horretan ondorioztatu den babesgabetasun maila.

1. taula: Erreferentziako urte bakoitzean esku hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko programan inplikaturako haur eta nerabeen kopurua².

Urtea	Haur eta nerabeak esku hartze sozioedukatiboan	EAEko haur eta nerabe guztien arteko %a
2020	11.081	% 2,73 ³
2021	11.196	% 2,80 ⁴
2022	12.913	% 3,29 ⁵

Iturria: 38 udal/mankomunitateari berriaz egindako informazio eskarien bidez jasotako datuak (EAEko biztanleriaren % 86,5), 2023ko martxoan.

5.- Administrazio publikoek batez beste zenbat denbora ematen dute familiekin eta adingabearekin esku hartzen, azken horren arrisku egoera antzeman ostean? Zeintzuk dira arrisku egoeraren adierazpena bertan behera uzteko arrazoi nagusiak?

Udal eta mankomunitate gehienek urtebeteko aldia ezartzen dute esku hartzeko, bi urtera luzatu daitekeena, baldin eta beharrezkoa edo komenigarria dela uste bada. Hala ere, egoeren errealitate heterogenoaren ondorioz, denak egiten dute lan malgutasun handiz, esku hartzearekin jarraituz, beharrezkotzat jotzen duten denboran. Hala, benetan egindako **esku hartzearen denborak, batez beste**, urtebete eta erdi eta bi urte artean daude, baina ohiko desbideratze garrantzitsuak daude (6 hilabetetik 5 urtera arte). Egoeraren larritasunak edo konplexutasunak nahiz eman daitezkeen babes baliabide eta programen kopuruak eta kalitateak baldintzatzen dute behar horrekin jarraitzea (eta, beraz, baita esku hartzearekin ere).

Esku hartzea **bertan behera uzteko arrazoiak**, ezin baitugu arrisku egoeraren adierazpenari buruz hitz egin:

² Kontsultatutako 36 erakundeei buruzko informazioa.

³ 0-19 biztanleria, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2020 (EIN): 405.167.

⁴ 0-19 biztanleria, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2021 (EIN): 400.351.

⁵ 0-19 biztanleria, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2022 (EIN): 392.372.



- Egoera hobetzea eta arrisku adierazleak desagerraraztea.
- Egoera larriagotzea eta babesgabetasun egoeran dauden haurren foru zerbitzura bideratzea.
- Familia beste udalerrri batera lekualdatzea.

6. Arrisku egoeran dauden zenbat adingaberi aitortu die azkenean erakunde publikoak babesgabeziaren legezko egoera? Datu horiek 2022. urteari edo datu osoak biltzen dituen azken ekitaldiari buruzkoak izan behar dira, egoera horretan dagoen adingabearen generoa eta, ahal bada, adina zehaztuta.

Ezin da datu hori eman, hainbat arrazoi tarteko. Nabarmenenak:

- datuen erregistroaren kalitate baxua: sistematika eskasa udalerrri batzuetan datuak hartzeko orduan, datu desberdinak, eta beraz, finkatu eta alderatu ezin direnak (adibidez, espedienteek batzuetan haur edo nerabe bakoitzari egiten diote erreferentzia eta, beste batzuetan, familia unitateari), sistema informatiko orokorrak udalerrri osoarentzat, zurrunak eta datu zehatzak banakatzeko aukera ematen ez dutenak, edo gizarte zerbitzuen kudeaketa partikularra. Gainera, udalaren informazio sistematik "irtetean", larritasun mailaren zioz aldundiko haur zerbitzuetara bideratu delako, ez da gehiago zenbatzen.
- praktiken heterogeneotasuna, oro har zehaztutako prozedura baten barruan: goian adierazi dugun bezala, kontsultatutako udalerrietako zati garrantzitsu batek adierazi du, benetan, babesgabetasun egoeraren balorazio osoa egiten dutela soilik zantzuek larritasun handiagoa iradokitzen badute eta kasua aldundiaren gizarte zerbitzuetara bideratzea baloratzen bada. Bien bitartean, haur eta nerabe horiek eta beren familiek udalaren esku hartzea jasotzen dute (banaka edo taldean), eta, hala, "esku hartzearen bidezko balorazioa" definitzen dutena egin dezakete, edo, teknizismoak aparte utzita, babesak eskaini, gizarte zerbitzuen radarrean dauden bitartean, egoera larritzen denerako (hala badagokio).
- Aurrerago arazoetan jasoko den bezala, aldundiaren haur zerbitzuek udaleko gizarte zerbitzuetatik bideratutako kasuak jasotzen dituzte, baina, behin hara bideratutakoan, ez da beti komunikazio egokia mantentzen. Ez da erraza kasuen "trazabilitatea" zehaztea.



Hala ere, azken 3 urteetan aldundiaren babes zerbitzuek beren gain hartu dituzten kasu berrien datuak dauzkagu.

2. taula: Urte bakoitzean babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako foru gizarte zerbitzuek irekitako espediente berrietan inplikaturako haur eta nerabeen kopurua.

Foru zerbitzu berrien espedienteen kopurua			
	2020	2021	2022
EAE	1909	2636	2630
Araba	398	655	355
Bizkaia	1040	1339	1485
Gipuzkoa	471	642	790

Iturria: babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako foru gizarte zerbitzuek Arartekoari urtero emandako datuak.

Datu hauek interpretatzeko, edonola ere, interesgarria da Haurren Foru Zerbitzuetako bateko arduradunak emandako informazioa, zeinaren arabera, foru zerbitzuek ebaluatutako kasu guztiak datozen lehen mailako arretako gizarte zerbitzuetatik (hau da, udal zerbitzuetatik). Horrela, zera dugu:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak zuzenean eta premiaz sartzen dira, Ertzaintzak edo Udaltzaingoak antzematen dituelako edo larrialdiko harrera baliabideetan agertzen direlako. Beti dira babesgabetasun larriko edo babesgabeziako egoerak, baina kasuaren plana egiteko gainerako guztia baloratzen da.
- 14 urtetik beherako arau-hausleen espedienteak, ministerio fiskalak bideratutakoak, zuzenean sartzen dira, Adingabearen Zigor Erantzukizunaren Legean ezarritakoaren arabera. Izan ere, Lege horrek babes erakunde publikora igorri behar direla ezartzen du. Kasu gehienetan, ez dira premiazko balorazio edo esku hartze bat behar duten egoerak, eta sakon baloratzen dira, soilik, aurretik bi gai aztertu ondoren: gertaeren larritasuna eta errepikapena. Baina aurretik ez dira udaleko gizarte zerbitzuetatik pasatzen. Izatekotan, horietara bideratuko dira, babesgabetasun arineko arrisku edo babesgabetasunaren aurreko zaurgarritasun egoera moduan, eta jarraipena egiteko.
- Gainerako espedienteetatik heren bat ez da udaleko gizarte zerbitzuetatik iristen, baizik eta gizarte larrialdietatik, fiskaltzatik, epaitegietatik, aurretiko kasuetatik eta abar.



- Beste bi herenak (zenbaketatik bakarrik dauden atzerritarrak eta arau-hausleak kenduta, esan bezala) udaleko gizarte zerbitzuetatik iristen dira (baina kasu gutxi batzuetan horiek egindako balorazioak hutsuneak ditu eta Otik hasi behar da, emaitza desberdinekin –hau da, ez soilik babesgabetasun larria edo babesgabezia–).

3. taula: Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuan jasotako haur eta nerabeen jakinarazpenen banaketa (ehunekoa), jatorriaren arabera.

	2020		2021		2022	
	Haur eta nerabeen kopurua	Kopuru osoaren gaineko %a	Haur eta nerabeen kopurua	Kopuru osoaren gaineko %a	Haur eta nerabeen kopurua	Kopuru osoaren gaineko %a
Familia erreferentea Gipuzkoan	269	% 57,1	331	% 51,5	367	% 46,5
Arau-hausleak	72	% 15,3	119	% 18,5	118	% 14,9
Familia erreferenterik gabeko migratzaileak	130	% 27,6	192	% 30	214	% 27,1
Ukrainako aldi baterako babes-sa					91	% 11,5
	471 (373 familia)	% 100	642 (461 familia)	% 100	790 (604 familia)	% 100

Iturria: babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako foru gizarte zerbitzuek Arartekoari urtero emandako datuak.

7.- Zein babes neurri hartu da arrisku egoeraren ostean legezko babesgabezia egoera aitortu zaien adingabeentzat? Datu horiek 2022. urteari edo datu osoak biltzen dituen azken ekitaldiari buruzkoak izan behar dira, egoera horretan dagoen adingabearen generoa eta, ahal bada, adina zehaztuta.

Ezin dugu datua eskaini, udaleko gizarte zerbitzuek bideratutako egoerak eta hartutako babes neurria lotuz. Horrek espediente bakoitzaren trazabilitatea edukitzea eragingo luke, eta, datu publiko eta eskuragarrietan, guk dakigula, ez dago halakorik.

Hurrengo taulak foru aldundietako babeseko gizarte zerbitzuek artatutako haur eta nerabeen kopuruari buruzko datuak ematen dizkigu, azken hiru urteetakoak. Hau da, balorazioaren arabera babesgabetasun larrian edo babesgabezian egondako haur eta nerabeak azaltzen dira. Banaketa neurririk izan ez duten eta familian esku hartzeko programa intentsiboak dituzten haur eta nerabeei buruzko datuak ematen



dira, bai eta banaketa neurriak dituzten haur eta nerabeen datuak ere (gehienetan, tutoretzapean daude, baina baita zaintza eta berehalako arretarekin ere), urte bakoitzeko abenduaren 31n.

Egoitza harreraren atalean, familia erreferenterik gabeko nerabe migratzaileen kopurua jasoarazi da, neurri hori duten haur eta nerabe guztien gaineko pisua antzemateko. Adinari dagokionez, seguru eman daitekeen datu bakarra dago: ez dago 3 urtetik beherako haurrik egoitza harreran.

Era berean, 2022an familia harreran dauden haur eta nerabe ukrainarren datua aurkeztu da. Atal honetan, aipatzekoa da, taula honetan zenbatutako haur eta nerabeez gain, ehun gazte baino gehiagok jarraitzen dutela adingabeak zirenean beren harrera familia izan zenarekin, eta familia horiek babes ekonomikoa jasotzen jarraitzen dutela, baina ez dutela laguntza teknikorik jasotzen harrera eta adopzioan laguntzeko zerbitzuen eskutik.

4. taula: Egoitza eta familia harrerako modalitateetan hartutako haur eta nerabeen kopurua, erreferentziako urte bakoitzeko abenduaren 31n.

	2020			2021			2022		
Banaketa neurria dutenak (egoitza harrera + familia harrera)									
EAE			2190			2113			2374
Araba			305			312			336
Bizkaia			1174			1084			1230
Gipuzkoa			721			717			808
Egoitza harrera									
		<i>BDAA</i>	Guztira		<i>BDAA</i>	Guztira		<i>BDAA</i>	Guztira
EAE	941	460 (% 32,8)	1401	979	391 (% 28,5)	1370	1014	496 (% 32,8)	1510
Araba	146	62 (% 29,8)	208	170	58 (% 25,4)	228	162	79 (% 32,8)	241
Bizkaia	471	330 (% 41,2)	801	492	261 (% 34,7)	753	519	323 (% 38,4)	842
Gipuzkoa	324	68 (% 17,3)	392	317	72 (% 18,5)	389	333	94 (% 22)	427




Familia harrera									
			Guztira			Guztira		Ukraina	Guztira
EAE			789			743			864
Araba			97			84			95
Bizkaia			363			331		34 (% 8,8)	388
Gipuzkoa			329			328		57 (% 15)	381

Iturria: babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako foru gizarte zerbitzuek Arartekoari urtero emandako datuak.

BDAA: bakarrik dauden adingabe atzerritarrak

1. grafikoa: Egoitza harrerako eta familia harrerako haur eta nerabeen banaketa, 2022ko abenduaren 31n.



Iturria: bertan egina, babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako foru gizarte zerbitzuek Arartekoari urtero emandako datuak oinarri hartuta.

Datu honekin batera, interesgarria da babesgabetasun arrisku larriaren edo babesgabeziaren balorazioa jaso duten haur eta nerabeei buruzko datua, banaketa neurririk gabe, foru aldundietako babeseko gizarte zerbitzuek familia esku-hartzeko programa intentsiboaren bidez artatutakoak kontuan hartuta.

5. taula: Erreferentziatzko urte bakoitzean esku hartze familiarreko programa intentsiboetan artatutako haur eta nerabeen kopurua.

	2020	2021	2022
EAE	1675	1751	1657
Araba	543	526	498
Bizkaia	491	532	463
Gipuzkoa	641	693	696

Iturria: babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako foru gizarte zerbitzuek Arartekoari urtero emandako datuak.



8.- Zelan jorratzen dira premiazko arrisku egoerak autonomia erkidegoan? Ba al dago egoera hauetarako protokolo zehatzik? Deskribapen laburra.

Oro har, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak (1. puntuan aipatua) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko prozedura arautzen du (III. kapitulua), bai ohiko prozeduran, bai premiazko prozeduran. Bigarren kasu horretan, udaleko premiazko gizarteko zerbitzuek edo aldundiaren eskumeneko Gizarte Larrialdien Koordinazio Zerbitzuak garrantzia berezia dute. Hala ere, eta osagarri gisa, Adingabeen babesgabetasun egoeretarako otsailaren 18ko 3/2005 Legea jotzen da.

Bestalde, babesgabetasun egoerak baloratzeko tresnak azaletik bada ere adierazten du nola jokatu behar den premiazko egoeretan eta, berriz ere, otsailaren 18ko 3/2005 Legean ezarritakoa azpimarratzen du:

(27. orr.) Arestian adierazi dugun moduan, kasu gehienetan babesgabetasuneko egoera baten existentziaren eta haren larritasun-mailaren balorazioa udal-mailako gizarte-zerbitzuei dagokie eta haiek egin beharko dute, eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratuko dute kasua, arrisku larriko egoera edo desanparo-egoera dagoela jotzen denean. Hala ere, udal-mailako gizarte-zerbitzuen balorazioko edo esku-hartzeko prozesuan zehar desanparo-egoera bat identifikatzen bada eta urgentziaz babesteko esku hartzea behar dela erabakitzen bada, lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratuko da kasua berehala, jaso den informazioarekin. Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen erantzunak ere berehalakoa izan beharko du, eta, beharrezkoa izanez gero, urgentziako esku-hartzea egingo da, 3/2005 Legearen 59. artikuluan araututakoarekin bat. Kasu horretan, bi zerbitzuek erabakiko dute gero esku hartzeko prozesuarekin jarraitzeko eta balorazio-prozesua osatzeko estrategia, eta prozesua lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen esku geratuko da.

59. artikulua honela dio:

1.- Haurren edo nerabearen osotasun fisiko edo psikikoa babesgabetasun larrian dagoenean eta berehala esku hartzea beharrezkoa denean, presazko egoera batean gaudela joko da.

2.- Eskumena duen organoak, aurreko artikuluko c) idatz-zatian ezarritako tramitea bete eta berehala, administrazio-ebazpena emango du, eta hartan, babesgabezia-egoera deklaratu du -betiere, egoera hori behar bezala



egiaztatu bada—, babesgabezia dagoen hauraren edo nerabearen tutoretza hartuko du bere gain, eta hari laguntzeko behar adina neurri ezarriko ditu. Ebazpen hori ministerio fiskalari eta hauraren edo nerabearen gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei jakinaraziko zaie. Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera jarraituko da, gero, espediente arruntaren tramitazioa.

Tramite guztiak bete ondoren, eskumena duen organoak administrazio-ebazpena emango du, dela babesgabezia-egoera baieztatzeko eta egindako balorazioaren arabera egokienak diren neurriak hartzeko, dela hasieran ezarritako tutoretzaren amaiera adierazteko, hartu diren behin-behineko neurriak bertan behera uzteko eta espedientea artxiboratzeko. Tutoretzaren amaiera adierazten denean arrisku txikia edo ertaina badagoela ikusten bada, kasua dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuari igorriko zaio, egokien deritzen neurriak har ditzan.

3^a. Defentsa bulegoek autonomia erkidegoan haur eta nerabeen arrisku egoerari buruz antzemandako arazo eta disfuntzio nagusien deskribapena.

Arrisku egoeretan babesa emateko sistemaren arazoak eta disfuntzioak, ofiziozko ikerketa eta erreklamazioak kontuan hartuta:

1. Udaleko gizarte zerbitzuen aitortzarik eza hazkuntzarako babes gisa, eta administrazioaren esku hartzearen legitimaziorik eza.

Kasurik onenean, gizarte zerbitzuak familien jardueretatik aparte dauden elementu gisa ikusarazten dira, familiak izanik hazkuntzaren arduradun bakarrak ("NIRE seme-alabak dira"). Beste batzuetan, mehatxu moduan ikusten dira, beren esku-hartzeak haur edo nerabea familia ingurutik bereiztea ekar dezakeelakoan. Horren guztiaren ondorioz, esku hartzean erresistentziak egoten dira (lankidetzaren falta) eta kasuak behar baino kasu gutxiago antzematen dira (zailtasunak ezkututzen dira).

2. Baliabide eta espezializazio urritasuna, udalerrri txikiaren kasuan areagotua. Ondorioak ikusarazten dira:
 - Balorazioetan: luzatutako denborak eta atzerapenak; udalerrri txikiaren balorazioak egiteko zailtasuna (kasuak ez dira ohikoak eta gizarte langileak ez du tresna kontrolpean, konplexu samarra baita).



- Esku hartzean: atzerapenak esku hartzeko programak aktibatzerako orduan; zailtasunak erkidego lanerako (koordinazioa eskolarekin, osasunarekin, kulturarekin...) eta prebentzio lanerako (informazioa, orientazioa, eragina babesgabetasunaren aurreko zaurgarritasun faktoreetan eta abar), eta nabarmen larriagoak diren egoerak antzematea ("berandu goaz").
3. Zalantzak, esku-hartzearen eraginkortasunari dagokionez. Baieztapen honek, ordea, ñabardurak behar ditu:
- alde batetik, dagoeneko aipatu da giza baliabideak urriak direla arrisku egoerak baloratu eta horietan esku hartzeko eta, gainera, batzuetan espezializazio gutxi dago, gutxi edo txarto planifikatutako esku hartzeetan ikus daitekeen bezala (ez dago beharrezko informazio guztia, eta inplikaturako haur, nerabe eta familiek ez dute parte hartzen), helburu ez oso errealistekin edo orokorrekin. Ebidentzietan oinarritutako programak urriak dira eta, gainera, garestiak.
 - esku hartzearen helburuekin lotuta, kontuan hartu behar da horiek nahitaez direla askotarikoak eta egoera bakoitzera egokituak. Kasu batzuetan, arrisku faktoreak desagertzea izango dute helburu; beste batzuetan, familian hazkuntza prozesuan laguntzea izango da asmorik errealistena, seme-alaba adingabeak diren tartean... Horrek esku hartzeko denborak zehaztuko ditu, bai eta egiten dugun esku hartzearen arrakastaren balorazioa ere.
 - azkenik, kautelaz hartu behar dira oso gatazkatsuak diren bikoteen hausturen ondorioz zentzu horretan jasotako kritikak. Testuinguru horietan, gizarte zerbitzuek inplikaturako aldean eskariak jasotzen dituzte, baita epaitegienak ere, betetzeko oso zailak direnak: haur eta nerabeak "gatazkatik" babesteko zeregina ematen zaie edo, zuzenean, gatazka etetea (miraria izan daiteke); zeregin oso zaila inplikaturako aldeek irtenbidea "kanpoan" jarri dutenean eta beren aldetik gauza handirik egiteko prest ez daudenean. Testuinguru honetan, ohikoa da txosten teknikoak zalantzan jartzea eta lankidetzan ez aritzea, baizik eta planteaturako esku hartzearen kontra, baina profesionaleri egotziz emaitzarik ez egotea.
4. Hutsuneak etengabeko arretan, kasua udaleko gizarte zerbitzuetatik aldundiko zerbitzuetara pasatzen denean edo alderantziz.



- Aldundiaren gizarte zerbitzuek gainditu egiten dituzte araudian kasua hartzeko ezartzen diren epeak. Baliabide aski ez egotearekin oso lotuta (ez giza baliabideak –balorazio taldeak–, ez materialak –plazak egoitza baliabidean–), baita aldundiaren babes zerbitzuetan ere.
 - Behin bideratutakoan, ez da ohikoa udaleko gizarte zerbitzuei jakinaraztea kasuaren bilakaera eta, askoz gutxiago, jarduera koordinatu posibleen planteamendua (gogoratu beharra dago, kasu askotan, udaleko gizarte zerbitzuek familiarekin lanean jarraitzen dutela, diru-sarrerak, etxebizitza eta abar bermatzeko).
 - Halaber, udaleko gizarte zerbitzuekin ez dago balorazio partekatu bat babesgabetasun arriskua murrizten den kasuetan eta familiara itzultzen den kasuetan. Ondorioz, itzulerak ere ez dira prestatzen udal mailan.
 - Desadostasunak udaleko eta aldundiko gizarte zerbitzuen artean (zurea da, nirea da):
 - balorazioa aplikatuta irteten den babesgabetasun maila kontuan hartzean, edo udaleko gizarte zerbitzuetatik bideratzeko arrazoiak aski egiaztatuta ez daudela uste delako. Kasu horietan, espedientea udaleko gizarte zerbitzuetara itzultzen da, beste balorazio bat egiteko eta abar.
 - Arrisku mailaren murrizketa eta udal eremurako “itzulera” egokia kontuan hartzean.
 - Kasuak behar duen esku hartzearen premian.
 - Inguruabarra edozein izanda ere, ondorioa da esku hartzea (haur edo nerabearen egoerari ematen zaion arreta) eten edo/eta atzeratu egiten dela. Gainera, gizarte zerbitzuen edo familiara lagundu dion erreferentziarako profesionalaren gaineko konfiantza nabarmen galtzen da, gizarte zerbitzuekiko loturarik eza nabarmendu ahala.
5. Esku hartzea zatitzea (zati zurrunak), batez ere genero indarkeria, bazterketa, desgaitasuna...bezalako egoerak daudenean. Aldundiaren zerbitzu eta programak zerbitzu eta sail desberdinek kudeatzen dituzte, eta zaila da sektorearteko begiradak izatea.

Gizarte zerbitzuen sistemaren barruko ikuspegi integral beharrezko hori egon beharko litzateke, era berean, aldundiaren gizarte zerbitzuetan, babesgabetasun egoeretan esku hartzen badute, eta udalekoetan, familiei laguntzeko neurri gehiago txertatzen baitituzte: diru sarreraren bermea, ostatua, bekak eta abar.

6. Udaltzaingoari edo Ertzaintzari premiaz edo kautelaz jarduteko aukera ematen dieten protokolorik eza, kontuan hartuta jarduera batzuetan haur edo nerabea abandonu, tratu txar edo babesgabezia egoera bizitzen ari dela edo halako egoera bizitzeko arrisku altua duela (tratu txarrak jasan dituzten



emakumeak babesteko protokoloak, adibidez, badaude). Etxeetan esku hartzen duteneko egoerak, helduekin arazoak daudelako, egoera horietan umeak ere egonik; ez da umeen egoera zalantzan jartzen edo haurrak esku hartze horren aurrean zein egoeratan geratzen diren aztertzen.

7. 14 urtetik beherako arau hausleak: informazio falta gurasoei eta denbora tarte luzeegia delitua egiten denetik gizarte zerbitzuei jakinarazi arte.
8. Babesgabetasun arriskuan dauden haur eta nerabeei buruzko datu estatistikoak, giza baliabideak, bitarteko ekonomikoak eta emaitzak zein izan diren jakiteko zailtasunak. Informazioa administrazio jarduleen artean sakabanatuta dago, eta adierazleak ez daude homogeneizatuta. Ondorioz, zaila da sistema berez planifikatzea, bai eta hura ebaluatu eta hobetzea ere.

4^a. Defentsa bulegoek haur eta nerabeen arrisku egoeren arloan egindako jarduera nabarmenen zehaztapena.

Arartekoaren Haur eta Nerabeen Bulegoak bere hasieratik egiten du haur eta nerabeei babesa emateko gizarte zerbitzuen sistemaren jarraipen berezia. Programa eta baliabideetara bisitak egiteaz gain, eremu horretan lan egiten duten erakundeekin hitz egin ohi du. Halaber, ohikoak dira foru aldundietako eta udal eta mankomunitateetako haurren zerbitzuekin egiten diren bilerak. Lan hori guzti hori ageri da Haur eta Nerabeen Bulegoak Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako urteko txostenean, Arartekoaren txosten orokorretik bereizita.

Kasuren batean babesgabetasun arriskuko egoeran dauden haur edo nerabeen errealtatea azterketa monografiko sakonagoetan ikertu izan da. Azken hamarkadan egin diren horiek hizpide, nabarmentzekoak dira "[Haurtzaro zaurgarri](#)" buruzko aparteko txostena eta honako azterlana: "[Euskal administrazioek 14 urte baino gazteagoak diren adin txikiko legehausleei emandako arreta hobetzeko gogoetak](#)". Nahiz eta haur eta nerabeen kolektibo hau ezingo litzatekeen osorik babesgabetasun arriskuan dagoen biztanleriatzat jo, egia da babes erakunde publikora bideratzen dela babesgabetasun egoera bat dagoen baloratzeko, eta, beraz, interesgarria izan daiteke prozeduran antzemandako disfuntzioei buruz bere garaian egiten zen azterketa.



5^a. Autonomia erkidegoetan adingabeko pertsonen arrisku egoerei buruz garatzen ari diren jardunbide onen deskribapena.

A) Kontuan hartuta lanean baliatzen duen ikuspegia eta garatzen dituen esku hartze goiztiarreko eta prebentzioko programa ugariak, gure ustez **Gasteizko Udaleko [Haur eta Familia Zerbitzuaren](#)** lana, oro har, jardunbide ona dela uler daiteke. Hala, honako hauek garatzen ditu:

1. Hiriko haur eta nerabeen arazo psikosozialak prebenitzeko eta garapen pertsonal eta soziala hobetzeko tailerrak, hain zuzen familiei zuzendutako jarduerak (gurasotasun positiboko ereduan oinarrituak) eta haur eta nerabeei zuzendutako jarduerak (psikologia positiboan oinarrituak) tarteko.
2. Zaurgarritasun egoeran dauden familiei laguntzeko programak, seme-alaben zaintza, hezkuntza eta arreta emozionaleko funtzioak garatzeko.
3. Esku hartze bidezko balorazioa, babesgabetasun neurritsuko egoeran dauden haur eta nerabeen egoera baloratzeko, balorazio prozesuan familiei laguntza emanez, hala behar badute.
4. Familia zaintzeko jarduerak, adingabeak beren etxeetan mantentzeko, beren zaintzaz, arretaz eta hezkuntzaz arduratzen diren pertsonak, inguruabar desberdinak tarteko, haur eta nerabeen garapen pertsonal eta soziala zalantzan jartzen edo kaltetzen ari badira, eta, beraz, babesgabetasun egoera badute, beren familiarik bereizteko neurriren bat ezartzea justifikatzen duen larritasunera iritsi gabe.

B) Esperientzia honez gain (zeina, esan bezala, nabarmena baita, antolatutako zerbitzu eta programen multzoagatik eta ikuspegiagatik), atal honetan aipatzekoak dira kontsultatutako udal eta mankomunitate batzuetan garatzen diren **beste ekimen** batzuk, emaitza interesgarriak eskaintzen dituztenak. Beharbada ez dira iristen "praktika onenen" kategoriara, baina lan erreferente onak dira, oro har esku hartze sozioedukatibo eta psikosozial indibidualean (udalerrri guztiek garatua) egiten den horren osagarri.

1. Hurtzaroari buruzko tokiko mahaiak: lan espazio egonkor eta diziplina artekoak, lurralde jakin batean (auzoa, barrutia edo udalerrria, osorik hartuta). Gizarte zerbitzuetako (gizarte lana eta esku hartze sozioedukatiboa), osasun



zerbitzuetako (pediatrik eta erizainak), hezkuntza zentroetako, kultura zerbitzuetako (liburutegiak, ludotekak...), udaltzaingoko... profesionalak eratutako taldeak, banakako kasuak edo arazo kolektiboak jorratzen dituztenak, aldian-aldian.

2. Taldeko esku-hartzeetarako programak, prebentzioa eta detekzio goiztiarra lortzeko asmo argia dutenak. Oso desberdinak dira helburu zehatzetan eta, beraz, hartzaile eta osaerari erreparatuta.
 - a. Haur eta nerabeei zuzenduta daude, eta emozio, babes sozioedukatibo, aisia edo jolaserako espazio eta bestelako tailerren bidez garatzen dira.
 - b. Haur eta nerabeen gurasoei edo hazkuntza arduradunei zuzenduta, hazkuntza, orientazio, kudeaketa zehatzetarako laguntza eta antzeko gaitasunak lantzeko. Batzuk oso espezifikoak dira, esaterako familia migratzaileetan familia berriz elkartzeko laguntza emateari buruzkoak.
 - c. Beste eremu batzuetako profesionalak zuzenduta, arrisku egoerak antzeman eta horietan jarduteko protokoloak jorratuz (indarkeria eta babesgabetasun adierazleak, komunikatzeko moduak eta abar).
3. Eguneko zentroak: etxe baten ezaugarrien antzekoak dituzten espazio fisikoak, jarduerak egiteko (banaka, familian edo taldean), familian antzeman diren zailtasun edo hutsuneak estaltze aldera, honako arlo hauetan, besteak beste: elikadura, higiena, hezkuntza babesa, aisia, denbora libre...
4. Diziplina askotako balorazioa: balorazioa gizarte laneko eta gizarte hezkuntzako profesionalak osatutako taldearen eskutik babesgabetasun zantzuak antzeman edo jakinarazi direla jasotzen den egunetik, nahiz eta jasotako esperientzia askotan psikologiako profesionalak ere parte hartzen duten.
5. Ebidentzietan oinarritutako programak: udal batean, "ebidentzietan oinarritutako" programak aplikatzen dituzte, eta badirudi emaitzak bermatzen zituztela. Nabarmentzekoa da, gainera, Copyrighta izaten dutela eta nahiko garestiak direla.



I. Eranskina. Defendatzaileen koordinaziorako 36. jardunaldien lantegirako galdetegia

1^a) Haur eta nerabeen arrisku egoeren gaineko araudia, autonomia erkidego bakoitzean aplikagarria

Autonomia erkidegoetako ARAUDIA	EDUKIAREN DESKRIBAPENA haurren arrisku egoeren arloan

2^a) Fenomenoa aztertzeko datu batzuk:

1.- Zein administraziok dute eskumena adingabeen arrisku egoerak antzeman, baloratu, horietan esku hartu, eta, hala bada, badagokio, administrazio ebazpena ezartzeko, autonomia erkidegoan?

2.- Badago tresna tekniko espezifikorik edo protokolorik autonomia erkidegoan adingabeen arrisku egoera posibleak baloratzeko?

3.- Haurrari eragiten dioten arrisku egoera posibleen adierazleak badaude:

- a) Esku hartzeko programa edo proiektuak daude? Deskribapen laburra
- b) Kasu horietan, arriskua aitortzeko administrazio ebazpenak egiten dira? Eta, hala bada, zein unetan igortzen da ebazpen hori?
- c) Esku hartzeko prozesu horietan, arriskuan dagoen adingabeari entzuten al zaio? Zein unetan entzuten da?

4.- Autonomia erkidegoko zenbat haur egon dira arrisku egoeran azken hiru urteetan (2020, 2021 eta 2022an)? Arrisku egoeran dauden umeen ehunekoa zenbatekoa da autonomia erkidegoko adin horretako biztanle guztien aldean? Zehaztu, ahal bada, egoera horretan dagoen adingabearen generoa eta adina.

5.- Administrazio publikoek batez beste zenbat denbora ematen dute familiekin eta adingabearekin esku hartzen, azken horren arrisku egoera antzeman ostean? Zeintzuk dira arrisku egoeraren adierazpena bertan behera uzteko arrazoi nagusiak?



6.- Arrisku egoeran dauden zenbat adingaberi aitortu die azkenean erakunde publikoak babesgabeziaren legezko egoera? Datu horiek 2022. urteari edo datu osoak biltzen dituen azken ekitaldiari buruzkoak izan behar dira, egoera horretan dagoen adingabearen generoa eta, ahal bada, adina zehaztuta.

7.- Zein babes neurri hartu da arrisku egoeraren ostean legezko babesgabezia egoera aitortu zaien adingabeentzat? Datu horiek 2022. urteari edo datu osoak biltzen dituen azken ekitaldiari buruzkoak izan behar dira, egoera horretan dagoen adingabearen generoa eta, ahal bada, adina zehaztuta.

8.- Zelan jorratzen dira premiazko arrisku egoerak autonomia erkidegoan? Ba al dago egoera hauetarako protokolo zehatzik? Deskribapen laburra.

3^a) Defentsa bulegoek autonomia erkidegoan haur eta nerabeen arrisku egoerari buruz antzemandako arazo eta disfuntzio nagusien deskribapena.

4^a) Defentsa bulegoek haur eta nerabeen arrisku egoeren arloan egindako jarduera nabarmenen zehaztapena.

5^a) Autonomia erkidegoetan adingabeko pertsonen arrisku egoerei buruz garatzen ari diren jardunbide onen deskribapena.



II. Eranskina. Udalei eta mankomunitateei informazio eskaera

Arartekoak urtero parte hartzen du, autonomia erkidegoko gainerako defentsa erakundeekin eta Espainiako Arartekoarekin batera, Koordinazio Jardunaldietan, hau da, gai monografiko bati buruzko diagnostiko lan bat eta proposamen partekatuak. Prozesu horren bidez, analisi konparatzailea eta hausnarketa partekatua egin nahi da, eskubideei dagokienez, pertsonen bizitza hobetuko duten gomendioak egiteko.

2023an, lanaren gai nagusia, adingabeek (haurrak eta nerabeak) jasan ditzaketen babesgabetasun arriskuko egoerak dira. Euskadin, gaur egungo araudiaren arabera, tokiko erakundeek dute eskumena babesgabetasun arrisku arineko eta ertaineko kasuetan esku hartzeko.

Lan prozesuan partekatzea erabaki den informazioari dagokionez, elementu kuantitatiboak nabarmentzen dira, izan ere, EAE mailan erregistro, datu banku edo gordailu bateratu eta eguneraturik ez dagoenez, Udal edo mankomunitate bakoitzaren lankidetzak eskatu behar dugu. Informazio eskaera horrek aukera emango digu arlo horretan, agian, garatzen ari diren alderdi kualitatiboagoez eta jardunbide egokiez interesatzeko.

Horregatik guztiagatik, Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legeak ezarritakoa aplikatuz, zure laguntza behar dut, hogeit eguneko epean honako informazio hau bidaltzeko:

1. 2020., 2021. eta 2022. urteetarako datuak (bereizita) honi dagokionez:

- a. Haur eta nerabeen babesgabetasun arriskua baloratzeko hasitako espediente kopurua.
- b. Arrisku arineko, ertaineko eta larriko egoeran daudela jo den haur eta nerabe kopurua.
- c. Hezkuntza eta gizarte alorretako eta alor psikosozialeko esku hartze-programetan dauden haur eta gazte kopurua (babesgabetasun arriskuan edo hortik kanpo).
- d. Arrisku arin eta ertainean dauden eta hezkuntza eta gizarte alorretako esku hartzeko programetan dauden haur eta nerabe kopurua.



- e. Ebazpen administratibo kopurua⁶ igorritako arrisku egoerak aitortzeko.
2. Aurreko puntuan aipatutako administrazio ebazpenak igorritz gero:
 - a. Zein unetan igortzen diren eta zergatik.
 - b. Beren erabilgarritasuna eta eraginkortasuna baloratu.
 3. 3/2005 Legeak banakako esku hartzeko plan bat aipatzen du eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak hezkuntza eta gizarte alorretako eta alor psikosozialeko zerbitzua (1.3 fitxa) termino zehatz batzuetan definitzen du. Esku-hartzeko planari dagokionez:
 - a. Zein da haren edukia? Aipatutako araudian adierazitakoaz bestelako zerbait edo osagarria den zerbait egiten dute?
 - b. Zein da iraupenaren batez besteko denbora (babesgabetasuna baloratu bitartean igarotako denbora zenbatu gabe, hau da, esku-hartzeko denbora arrisku arin edo ertaineko egoera zehaztu ondoren)?
 - c. Zure ustez, zure jarduketaren bat jardunbide egokitzat edo partekatzeko interesgarritzat har daiteke (berritzailea delako, eraginkorra delako, etab.)?
 4. Eskaera hori egiteko arrazoiaren xedea ebazteko interesgarritzat jotzen duzun beste edozein gai.

Zure lankidetzaren alde aurretik eskertuta, jaso ezazu nire agur adeitsuena.

⁶ Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2025 Legearen 17.6. artikuluan honako hau adierazten da:

La situación de riesgo será declarada por la administración pública competente conforme a lo dispuesto en la legislación estatal y autonómica aplicable mediante una resolución administrativa motivada, previa audiencia a los progenitores, tutores, guardadores o acogedores y del menor si tiene suficiente madurez y, en todo caso, a partir de los doce años. La resolución administrativa incluirá las medidas tendentes a corregir la situación de riesgo del menor, incluidas las atinentes a los deberes al respecto de los progenitores, tutores, guardadores o acogedores. Frente a la resolución administrativa que declare la situación de riesgo del menor, se podrá interponer recurso conforme a la Ley de Enjuiciamiento Civil.



III. Eranskina. Kontsultatutako tokiko erakundeen zerrenda

Udalak:

- Arrasate
- Azpeitia
- Barakaldo
- Basauri
- Bermeo
- Bilbo
- Donostia
- Eibar
- Erandio
- Ermua
- Errenteria
- Galdakao
- Getxo
- Hernani
- Hondarribia
- Irun
- Lasarte-Oria
- Laudio
- Leioa
- Pasaia
- Portugalete
- Santurtzi
- Sestao
- Tolosa
- Gasteiz
- Zarautz
- Zornotza

Mankomunitateak:

- Arratia
- Busturialdea
- Durangaldea
- Enkarterriak
- Lea-Artibai
- Lea-Ibarra
- Mungialdea
- Txorierri
- Uribe Kosta

Kuadrillak:

- Guardia-Arabako Errioxako kuadrilla
- Arabako Lautadako Kuadrilla

ARARTEKOA

Haur eta Nerabeentzako Bulegoa

Itzulpena: Hori-Hori S.A.L.



Arreta zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Fax: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia Eraikuntza. San Vicente, 8 – 8. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate 19, 1.a
20005 Donostia/San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88

